Sin./Fdo.: IDOYA GARAY TELLECHEA - 2026-03-06
LURRALDE ANTOLAMENDURAKO ATALEKO BURUA
JEFE/A SECCIÓN DE ORDENACIÓN TERRITORIAL

Sin./Fdo.: JOSE MARIA BILBAO INCHAURRAGA - 2026-03-06
LURRALDE KOHESIORAKO ZUZENDARIORDEA
SUBDIRECTOR/A DE COHESIÓN TERRITORIAL

Sin./Fdo.: AITOR ETXEBARRIA ATUTXA - 2026-03-06
LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL

Sin./Fdo.: CARLOS ALZAGA SAGASTASOLOA - 2026-03-09
AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE INFRAESTRUCTURAS Y DESARROLLO TERRITORIAL

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2026-03-12
GZko 25.gaia onartuta - Aprobado, asunto 25) de OD

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

**ERABAKIA,** zeinaren bidez behin-behinekoz onesten baita Bilboko Portuko Zerbitzugunea Antolatzeko Plan Bereziaren aldaketa puntuala, Getxoko Kirol Portuari dagokiona.

**ACUERDO**, por el que se procede a la aprobación provisional de la modificación puntual del Plan Especial de Ordenación de la zona de servicio del Puerto de Bilbao, relativa al puerto deportivo de Getxo.

## AURREKARIAK

**Indarrean dagoen Plan Berezia.-** Bilboko Portuko Zerbitzugunea Antolatzeko Plan Berezia (gaur egun indarrean dago) 1998ko uztailean onartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiak. Ondoren, bi aldaketa puntual onartu dira, 2000koa eta 2007koa.

Une honetan, Bilboko Portuko Agintaritzaren asmoa da Getxoko Kirol Portuan hotel bat ezartzeko aurreikuspena sartzea dokumentuan, ontzi-konpainia nagusien eskakizunei erantzuteko; horrela, hotel-azpiegitura egokia egongo litzateke Getxoko gurutzaontzien terminaletatik hurbil, non bidaiariek eta tripulatzaileek gaua igaro ahal duten.

Jarduketa hori egiteko, beharrezkoa da indarrean dagoen hirigintza-esparrua egokitzea, eta, horretarako, Bilboko Portuaren Plan Bereziaren aldaketa puntual bat planteatzen da, aurreikusitako esku-hartzea premiazkoa baita, eta, beraz, ezin da itxaron Portuko Plan Berezi osoaren berrikuspena onartu arte.

**Hasierako onespenaren aurreko prozesua.**- 2024ko abuztuaren 5ean, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak Bilboko Portuko Agintaritzaren jakinarazpen bat jaso zuen, sustatzaile gisa, irailaren 5eko 2/2011

## ANTECEDENTES

**Plan Especial vigente.-** El Plan Especial de Ordenación de la Zona de Servicio del Puerto de Bilbao actualmente vigente fue aprobado por la Diputación Foral de Bizkaia en julio de 1998. Posteriormente ha tenido dos modificaciones puntuales aprobadas en 2000 y 2007.

En el momento actual, es voluntad de la Autoridad Portuaria de Bilbao incorporar en el documento la previsión de la implantación de un hotel en el Puerto Deportivo de Getxo, que permita dar respuesta a las exigencias de las principales navieras en orden a disponer de una adecuada infraestructura hotelera cercana a las terminales de cruceros existentes en Getxo, que permita la pernoctación de pasajeros y de sus tripulantes.

Esta actuación requiere una adecuación del marco urbanístico vigente, para lo que se plantea una Modificación puntual del Plan Especial del Puerto de Bilbao, debido a que la urgencia que requiere la intervención prevista hace inviable esperar a la aprobación de la revisión del conjunto del Plan Especial portuario.

**Proceso previo a la aprobación inicial.-** Con fecha 5 de agosto de 2024, el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial recibió una comunicación de la Autoridad Portuaria de Bilbao, en calidad de promotor, en la que se

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 886Q-U803-ADU4-ZLWN
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Legegintzako Errege Dekretuaren 56. artikuluan aurreikusitako izapidetzea egin dadin eskatzeko (dekretu horrek Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bategina onartzen du), Bilboko Portuko Zerbitzugunea Antolatzeko Plan Bereziaren aldaketa puntuala (Getxoko Kirol Portuan) onartzeko.

Eskabidearekin batera, izapide hori bideratzeko behar diren agiriak aurkeztu ziren.

2024ko irailaren 8ko 525/2024 Foru Aginduaren bidez, aipatutako espedientearen hasierako onespenaren aurreko prozesua hasi zen.

Era berean, nahitaezko txostenak eskatu zitzaizkien honako administrazio sektorial hauei:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Itsasertz Mugartea; txostena 2025eko maiatzaren 25an jaso zen.
- Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusia; txostena 2024ko urriaren 21ean jaso zen.

- Telekomunikazioen eta Informazio Teknologien Zuzendaritza Nagusia; txostena 2024ko urriaren 4an jaso zen.

- Defentsa Ministerioa; txostena 2024ko urriaren 11n jaso zen.

- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa; txostena 2025eko urtarrilaren 14an jaso zen.

- Uraren Euskal Agentzia (URA); txostena 2024ko urriaren 2an jaso zen.

- Bilboko Portuko Agintaritza. Ez da haren txostenik jaso.

Txosten horiek sustatzaileari bidali zitzaizkion, hasierako onespenaren xede den dokumentua idaztean kontuan har zitezen.
Bestalde, EAEko Itsasertz Mugartearen txosten horren edukia ikusita, 2025eko maiatzaren 28an, Estatuko Abokatutzak txosten bat egin zuen Bilboko Portuko Agintaritzak eskatuta, Kostaldeei

solicita dar curso a la tramitación prevista en el artículo 56 del Real Decreto Legislativo 2/2011, de 5 de septiembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Puertos del Estado y de la Marina Mercante, para la aprobación de la Modificación Puntual del Plan Especial de Ordenación de la Zona de Servicio del Puerto de Bilbao, relativa al Puerto Deportivo de Getxo.

En la solicitud, se adjunta la documentación precisa para dar curso a dicha tramitación.

Por Orden Foral 525/2024 de 8 de septiembre de 2024, se inició el proceso previo a la aprobación inicial del citado expediente.

Así mismo, se solicitaron los informes preceptivos a las administraciones sectoriales siguientes:

- Demarcación de Costas del País Vasco, cuyo informe se recibió el 25 de marzo de 2025.

- Dirección General de Aviación Civil, cuyo informe se recibió el 21 de octubre de 2024.

- Dirección General de Telecomunicaciones y Tecnologías de la Información, cuyo informe se recibió el 4 de octubre de 2024.

- Ministerio de Defensa, cuyo informe se recibió 11 de octubre de 2024.

- Confederación Hidrográfica del Cantábrico, cuyo informe se recibió el 14 de enero de 2025.

- Agencia Vasca del Agua (URA), cuyo informe se recibió el 2 de octubre de 2024.

- Autoridad Portuaria de Bilbao, de la que no se ha recibido informe.

Estos informes fueron remitidos al promotor para tenerlos en cuenta en la redacción del documento objeto de aprobación inicial.
Por otra parte, la Abogacía General del Estado emitió un informe con fecha 28 de mayo de 2025, solicitado por la Autoridad Portuaria de Bilbao, a la vista del contenido del referido informe de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 886Q-U803-ADU4-ZLWN
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

buruzko Legearen II. tituluan aurreikusitako zortasunak eta mugak planaren xede den espazio-eremuan aplikatzeko aukerari buruz. Txosten hori espedientean sartu da.

Ingurumen-Ebaluazio Estrategikoa.-
2024ko uztailaren 1ean, planaren ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua hasteko eskaera bidali zitzaion Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailari, planaren dokumentazioarekin eta ingurumen-dokumentu estrategikoarekin batera.

Eragindako administrazio publikoentzako eta pertsona interesdunentzako kontsulta-izapidea egin ondoren, ingurumen-organoak ingurumen arloko txosten estrategikoa egin zuen, eta 2025eko urtarrilaren 29ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Txosten estrategikoan ezartzen den bezala, proposamenak ez du eragin nabarmenik ingurumenean, eta, beraz, ez zaio ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntik egin behar, baldin eta aipatutako txostenean jasotako baldintzak betetzen badira.

Hasierako onespena.-
Nahitaezko txostenetan, Estatuaren Abokatutza Orokorraren txostenean eta ingurumen-txosten estrategikoan oinarrituta, sustatzaileak hasierako onespenerako dokumentua idatzi zuen. Dokumentu horri 2025eko uztailaren 10eko Foru-rabaki baten bidez eman zitzaion hasierako onespena.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 95. artikuluaren 2. apartatua aplikatuz (plan partzial eta berezien onespenari buruzkoa da artikulu hori), hasieran onetsitako plana jendaurrean jarri zen 20 egun baliodunez, hasierako onespenaren erabakia argitaratu zenetik aurrera. 2025eko irailaren 15ean argitaratu zen, bai Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO, 175. zk.), bai El Correo eta Deia egunkarietan.

Entzunaldirako epearen barruan, zortzi alegazio jaso ziren, eta sustatzaileari helarazi zitzaizkion,

Costas, sobre la posibilidad de aplicar las servidumbres y limitaciones previstas en el Título II de la Ley de Costas en el ámbito espacial objeto del plan. Este informe ha sido incorporado al expediente.

Evaluación ambiental estratégica.- Con fecha 1 de julio de 2024, se remitió al Departamento de Medio Natural y Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia la solicitud de inicio de la evaluación ambiental estratégica simplificada del plan, junto con la documentación del plan y su correspondiente Documento Ambiental Estratégico.

Realizado el trámite de consultas a las administraciones públicas afectadas y a las personas interesadas, el órgano ambiental emitió el informe ambiental estratégico, publicado en el Boletín Oficial de Bizkaia de fecha 29 de enero de 2025. En él, se establece que la propuesta no tiene efectos significativos sobre el medio ambiente y, por tanto, no debe someterse a evaluación ambiental estratégica ordinaria, siempre que se cumplan las condiciones recogidas en el citado informe.

Aprobación Inicial.-
Con base en los informes preceptivos, en el informe de la Abogacía General del Estado y en el informe ambiental estratégico, el promotor redactó el documento para la aprobación inicial. Este documento fue aprobado inicialmente mediante Acuerdo Foral de fecha 10 de julio de 2025.

En aplicación del artículo 95.2 de la Ley 2/2006 de suelo y urbanismo, relativo a la aprobación de los planes parciales y especiales, el plan aprobado inicialmente fue sometido a información pública por el plazo de 20 días hábiles a partir de la publicación del acuerdo de la aprobación inicial. Dicha publicación se realizó el 15 de septiembre de 2025, tanto en el Boletín Oficial de Bizkaia (BOB nº 175) como en los diarios El Correo y Deia.
Durante el periodo de audiencia, se recibieron ocho alegaciones diferentes, que se trasladaron al

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 886Q-U803-ADU4-ZLWN
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

kontuan har zitzan behin-behineko onespenerako dokumentua idazten zuenean.

Aurkeztutako alegazioei emandako erantzunak dituen txosten osoa Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean argitaratuta dago, eta banan-banan jakinarazi zitzaien alegazioak aurkeztu zituztenei, 2026ko otsailaren 2an.

Txosten horrek Estatuko Abokatutzaren txosten juridiko bat du, Bizkaiko Foru Aldundiak plana onesteko duen eskumenari buruzkoa. Gai hori alegazioen izapidean sortu zen.

2026ko otsailaren 6an, Bilboko Portuko Agintaritzak behin-behinean onesteko dokumentua igorri zion Bizkaiko Foru Aldundiari. Dokumentu horren edukia bat dator alegazioei erantzuteko txostenean adierazitako kontsiderazioekin.

**Ondorengo izapidetzea.-** Aurreko guztia kontuan hartuta bidezkoa da:

1. Behin-behinean onestea Bilboko Portuko Zerbitzugunea Antolatzeko Plan Bereziaren aldaketa puntuala, Getxoko Kirol Portuari dagokiona.

2. Behin-behinean onetsitako dokumentua Bilboko Portu Agintaritzari bidaltzea, bere eskumeneko alderdiei buruzko iritzia eman dezan, behin-behinekoz onetsi eta hamabost eguneko epearen barruan, gehienez ere, Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 56.2.c) artikulua aplikatuz.

3. Erabaki hau eta dokumentua administrazio sektorialei bidaltzea, dokumentu hori behin betiko onetsi aurretik eman beharreko nahitaezko txostenak egin ditzaten.

Horregatik guztiagatik, aurreko guztia betetzeko, eta indarrean dagoen ordenamendu juridikoak

promotor para su toma en consideración de cara a la redacción del documento de aprobación provisional.

El informe completo de respuestas a las alegaciones presentadas está publicado en la página web de la Diputación Foral de Bizkaia, y se notificó individualmente a cada uno de los alegantes el 2 de febrero de 2026.

Dicho informe incluye un informe jurídico de la Abogacía del Estado sobre la competencia de la Diputación Foral de Bizkaia para la aprobación del plan, cuestión suscitada en el trámite de alegaciones.

Con fecha 6 de febrero de 2026, la Autoridad Portuaria de Bilbao remitió a la Diputación Foral de Bizkaia el documento para la aprobación provisional, cuya redacción está ajustada a las consideraciones señaladas en el informe de respuesta a las alegaciones.

**Tramitación posterior.-** Por cuanto antecede, procede:

1. La aprobación provisional de la Modificación Puntual del Plan Especial de Ordenación de la Zona de Servicio del Puerto de Bilbao, relativa al Puerto Deportivo de Getxo.

2. Remitir el documento aprobado provisionalmente a la Autoridad Portuaria de Bilbao, en el plazo máximo de quince días desde la aprobación provisional, para que este se pronuncie sobre los aspectos de su competencia, en aplicación del artículo 56.2.c) del Real Decreto Legislativo 2/2011, de 5 de septiembre, por el que se aprueba el texto Refundido de la Ley de Puertos del Estado y de la Marina Mercante.
3. Remitir el presente Acuerdo y el documento a las administraciones sectoriales para la emisión de los informes preceptivos previos a la aprobación definitiva de dicho documento.

Por todo ello, en cumplimiento de todo lo anterior, por la presente y en uso de las atribuciones

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 886Q-U803-ADU4-ZLWN
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ematen dituen eskudantziak erabiliz, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako diputatuak proposatuta, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak honako hau

ERABAKI DU

**Lehenengoa**.– Behin-behinean onestea Bilboko Portuko Zerbitzugunea Antolatzeko Plan Bereziaren aldaketa puntuala, Getxoko Kirol Portuari dagokiona.

**Bigarrena**.– Behin-behinean onetsitako dokumentua Bilboko Portu Agintaritzari bidaltzea, bere eskumeneko alderdiei buruzko iritzia eman dezan.

**Hirugarrena**.– Erabaki hau eta dokumentua administrazio sektorialei bidaltzea, dokumentu hori behin betiko onetsi aurretik eman beharreko nahitaezko txostenak egin ditzaten.

Ebazpen honen aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu, Bilboko Portuko Zerbitzugunea Antolatzeko Plan Bereziaren (Getxoko Kirol Portua) aldaketa puntualaren prozeduraren barruko izapide-egintza baita.

conferidas por el ordenamiento jurídico en vigor, el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, a propuesta del diputado de Infraestructuras y Desarrollo Territorial,

ACUERDA

**Primero.–** Aprobar provisionalmente la modificación puntual del Plan Especial de Ordenación de la Zona de Servicio del Puerto de Bilbao, relativa al puerto deportivo de Getxo.

**Segundo.–** Remitir el documento aprobado provisionalmente a la Autoridad Portuaria de Bilbao para que este se pronuncie sobre los aspectos de su competencia.

**Tercero.–** Remitir el presente Acuerdo y el documento a las administraciones sectoriales para la emisión de los informes preceptivos previos a la aprobación definitiva de dicho documento.

La presente resolución no es susceptible de recurso al constituir un acto de trámite dentro del procedimiento de modificación puntual del Plan Especial de Ordenación de la zona de servicio del Puerto de Bilbao, relativa al puerto deportivo de Getxo.

Lurralde Antolamendurako Ataleko burua / Jefa de Sección de Ordenación Territorial.

IDOIA GARAY TELLECHEA

Lurralde Kohesiorako zuzendariordea/ Subdirector de Cohesión Territorial.

JOSE MARIA BILBAO INCHAURRAGA

*O.E. /Vº Bº*

Lurralde Garapenerako zuzendari nagusia / Director General de Desarrollo Territorial.

AITOR ETXEBARRIA ATUTXA

**Aurreko tramitean ezarri denarekin bat, Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio. /De conformidad con el trámite precedente, elévese al Consejo de Gobierno.**

Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Foru-Diputatua / El Diputado Foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial.

CARLOS ALZAGA SAGASTASOLOA

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 886Q-U803-ADU4-ZLWN
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus